

HONDAKINEN KUDEAKETA. Gaur amaituko dira Bilbon Zarama Maitaleen XVII. Topaketak. Ostegunetik aurrera, zaborrak berreskuratzeko moduez eztabaidatu dute hainbat ekologista eta adituk. Atzo errausketaz mintzatu ziren.

Erraustearen ajeak

Zarama Maitaleen Topaketetan Euskal Herrian egin asmo dituzten errausteko planten «kalteak» aipatu zituzten, eta «gizartearen mobilizazioaren garrantzia» nabarmendu

Gotzon Hermosilla | BILBO

Bilbon egiten ari diren Zarama Maitaleen XVII. Topaketetan, errausketa izan zuten hizpide atzoko jardunaldian. Gipuzkoan eta Bizkaian egin asmo diren errausteko planten nondik norakoak aztertzeaz gain, mundu osoan dauden joera nagusiak ere aipatu zituzten Euskal Herriko, Herri Katalanetako eta Espainiako ekologista eta adituek, eta erraustegien kontrako mugimenduaren diskurtso eta praktikan egin beharreko hainbat aldaketa ere proposatu zituzten. Mahai ingurua amaitutakoan, Zabalgardi eta Gipuzkoako errausteko planten aurka elkarretaratzea egin zuten Guggenheim museoaren aurrean.

Gipuzkoan eta Bizkaian eraiki gura dituzten erraustekoez berba egiteko Xabier Landa San Markos Mankomunitateko lehendakaria eta Iñaki Eguskizaga Bizkaia Bizirik eta Ekologistak Martxan-eko abokatua izan ziren. Landak adierazi zuen Gipuzkoako Diputazioak egindako txostenetan bi errausteko planta eraikitzea aurreikusten dutela: bat Irun inguruan, Txingudi badiako herrien hondakinak errausteko eta, agian, Lapurdiko kostaldeko herrietako hondakinak ere jasoko lituzkeena, eta beste bat Donostia inguruan.

Izan ere, San Markos Mankomunitatea osatzen duten herriek zabortegi bat erabiltzen dute, baina aipatutako zabortegiari lau urteko iraupena aurreiki zitoten adituek. Beraz, 2000 urtean arazoari irtenbideren bat eman beharraz hitz egiten hasi ziren hainbat instituzio eta komunikabide. Landak esan zuenez, San Markos Mankomunitateak «presio politikoak» jasan zituen erraustekoaren aldeko jarrera azal zezan, eta gaur egun alderdi politikoek Mankomunitatean duten indar-koerlazioa ikusita, seguru asko Mankomunitatearen jarrera «erraustekoaren aldekoa» izango dela aurreratu zuen Landak.

Bestalde, Mankomunitatearen lehendakariak salatu zuen orain Diputazioak «komunikazio plan bat» jarri nahi duela abian, «gipuzkoar guztien iritzia jaso eta parte-hartzea bermatzeko, baina alegazioak aur-



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Ezkerretik eskuinera, Iñaki Eguskizaga, Miquel Crespo, Xabier Landa eta Sara del Rio.

kezteko epea urriaren 16an amaitu zen».

Zabalgardi egitasmoa, «oinarri finkorik gabea»

Iñaki Eguskizagak Zabalgardi egitasmoaren aurkako prozesuaren nondik norakoak azaldu zituen. Abokatuaren esanetan, horren kontra abian jarritako prozedurak bi motatakoak izan dira: administrazioaren arlokoak eta epai-prozedurak. Lehengoei dagokienez, Eguskizagak esan zuen Kudeaketa Integraleko Plana, Zabalgardi egitasmoaren sorburua dena, ez dela Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu.

Era berean, Eguskizagaren arabera, «erraustekoa beharrezkoa zela ondorioztatzeko erabili zituzten datuak ez ziren benetakoak. Garai hartan ez zegoen daturik eta, beraz, Frantziako hainbat hiritako edo Vancouverko datuak estrapolatu zituzten. Egitasmoak ez

dauka oinarri finkorik». Beste aldetik, Zabalgardik egindako publizitatea «gezurrezkoa» zela esan zuen, eta gogoratu zuen salaketa bat aurkeztu zutela Zabalgardiren kontra ustez «iruzurrezko publizitatea» egiteagatik.

Epai-prozedurak ere abian jarri dituztela esan zuen Eguskizagak, eta epaileek erabakitzen dutenaren zain daude. Horien artean, Hirigintza Plan Berezia aipatu zuen, «horren arabera, erraustekoa ezarri nahi duten eremua ez delako eraikitzeko lurra». Era berean, Bilbo kutsatu gabeko eremu izendatzeko saiaketak aipatu zituen: «Espainiako Gobernuak eremu kutsatu izendatu zuen Bilbo 1977an. Eusko Jaurlaritzak izendapen hori kendu nahi du, osterantzean, egin nahi dituzten hainbat egitasmo aurrera ateratzea ezinezkoa litzatekeelako, baina Bilbo kutsatuta dagoen ala ez erabakitzeko erabilitako hain-

bat neurketatan akatsak sumatu dituzte: txostenetan ez dira neurketa-gune guztiak agertzen, ez eta neurketa-egun guztiak ere».

Gizartearen presioa, «erabakigarria»

Sara del Rio Espainiako Greenpeace erakundearen *Toxikoak* kanpainaren arduradunak errausketak nazioartean duen egoera azaldu zuen. Esan zuenez, «errausketak irudi problema handiak ekarri dizkie hainbat enpresari, eta, horregatik, beste termino batzuk erabiltzen saiatzen dira: orain, *energia berde* eta antzeko berbak erabiltzen dituzte, eta errausketa klimaren aldaketaren kontrako neurri bezala aurkezten saiatzen dira».

Era berean, Greenpeaceko adituaren arabera, «enpresek esaten dute kontrol sistemarik aurreratuenak erabiltzen dituztela. Baina sistema horiek man-

tentzeko zailak dira, eta ez dira guztiz eraginkorrak».

Del Rio esan zuenez, erraustekoaren kopurua ez da gutxitu azken urteotan, «baina estrategia aldatuta sartzen da, erraustekoak eraikitzeko beste lekuak bilatzen ari direlako, batez ere Hirugarren Munduan». Esaterako, Munduko Bankuak 1993tik 156 errausteko planta finantzatu ditu 68 herrialdetan, eta, datu bat ematearren, horietatik 12 Kenyan eraiki dituzte.

Hala ere, Sara del Rioren ustez, gizartearen mobilizazioa eraginkorra da errausteko planta gehiago eraiki ez daitezen. «AEBetan, 1985etik 300 planta eraikitzea eragotzi du gizarte eta iritzi publikoaren mobilizazioak». Kasurik argigarriena Filipinetakoa da: bertan eraiki nahi zuten munduko plantarik handiena, eta, gizartearen protestaldien ondorioz, egitasmoa bertan behera uzteaz gain, erraustekoaren erabaketo debe-